

EUSKADIKO TRIATLOI FEDERAZIOKO DIZIPLINAZKO ARAUTEGIA

I. IZENBURUA

DIZIPLINAREN AHALARENA ETA ZIGORRENA ZEIN ARAU-HAUSTEENA

I. Kapituluua: Xedapen Orokorrak

1. Artikulua: Euskadiko Triatloi Federazioaren diziplinazko ahalaren jarduerak bere kideak diren pertsona fisikoak eta juridikoak, Federazioaren egitura organikoa eratuko duten pertsonak hala nola Federazioaren kideak diren zein bere egitura organikoaren barne leudekeen pertsona juridikoen edota erakundeen ordezkari bezala jardungo luketenak eragingo ditu.

2 . Artikulua: Diziplinazko ahalaren eremua joko eta lehiaketa arauen arau-hausteetara eta indarrean dagoen Euskadiko Kirolaren Legean hala tipifikatutako kirol arau orokorren arau-hausteetara hedatuko da, baita diziplinazko ahala arautuko duten arautegiko xedapen publikoetan, eta Euskadiko Triatloi Federazioko Estatutuetan zein Arautegi honetan aurreikusitako arau-hausteetara ere.

3. Artikulua: Diziplinazko ahala Federazioari bere diziplinaren mendean dauden pertsonak ikertzeko eta, bere kasuan, zigortzeko ematen zaion ahalmena izango da.

Diziplinazko ahala ez da Jokoaren Arau Teknikoak aplikatzerakoan arbitro jaun/andreei eta epaile jaun/andreei esleitutako probak ala lehiaketak zuzentzeko ahalmenarekiko hedapena izango, ezta lehiaketa organoek horiek berrikusteko ahalmenarekiko ere.

II. Kapituluua: Arau-hausteak eta Zigorrak

4. Artikulua: Arau-hausteak bi motakoak izan ahal dira:

- 1.- Joko ala lehiaketa arauen inguruko arau-haustea ala urratzea.
- 2.- Kirol arau orokorren inguruko arau-haustea ala urratzea.

5. Artikulua: 1.- Zigorrek izaera hezitzailea, prebentziokoa eta zuzentzailea izango dute, eta bere ezarpenaren helburua beti interes orokorraren eta kiroltasunaren defentsa izango da. Zigorrak aplikatzerakoan kontuan hartuko dira, batez ere, arau-hauslearen asmoa eta egitearen zein ez-egitearen emaitza.

2.- Dagokion diziplinazko espedientearen bidez ezarritako zigor guztiak ezartzen dituen ebazpenaren arabera betearaziko dira, baliabide egokiak

ezagutu beharko dituzten federazio, administrazio ala jurisdikzio organoek eskuragarri dituzten kautelazko etenaldirako ahalmenei utzi gabe.

3.- Isun ekonomikoaren zigorra ordainsariak edota konpentsazioak jasotzen dituzten kirolarien, teknikari jaun/andreen eta epaile jaun/andreen hala nola pertsona juridikoen kasuan soilik ezarri ahal izango da.

I. Atala: Joko-Arauen Arau-hausteena eta bere zigorrena

6. Artikulua: Jokoaren ala lehiaketaren araukiko arau-hausteak izango dira Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutako jokoaren ala lehiaketaren garapen normala kaltetuko, eragotziko ala nahasiko duten egiteak ala ez-egiteak.

7. Artikulua: Arau-hauste horien autoreak izan ahal dira Kirolariak, Entrenatzaileak, Ordezkariak eta Zuzendariak; era berean izan ahal dira Talde Arbitraleko Kideak ala Klubak.

Kirolariak, Entrenatzaileak, Ordezkariak eta Zuzendariak eginiko Arau-hausteak eta Zigorrak.

8. Artikulua: Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan ahal dira.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Kontsideratuko dira, edozein kasutan, arau-hauste oso larriak ondorengoak:

a) Talde arbitraleko kide bati ala zuzendari bati, kirol zuzendariari, taldetako kideari, ikusleari ala, orokorrean, edozein pertsonari eginiko eraso, jarduera hura larria ala kaltegarria denean.

b) Probaren behin-betiko etetea eragingo duten jarduerak egitea.

2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan arau-hauste larriak kontsideratuko dira ondorengoak:

a) Aurreko artikuluen a) ataleko pertsonengan eginiko eraso, betiere jarduera, bere larritasunarengatik, arau-hauste oso larria izaten ez denean.

b) Talde arbitraleko kide, zuzendari, kirol zuzendari, taldeko kide, aurkari, entrenatzaile, ikusle ala orokorrean edozein pertsonaren aurka eginiko mehatxua, derrigortze edota jarduera iragarri.

3.- Arau-hauste arinak:

Kontsideratuko dira, edozein kasutan, arau-hauste arinak ondorengoak:

- a) Arbitroen erabakiak behin eta berriro errefusatzea.
- b) Arbitroen aginduak betetzerakoan jarrera pasiboa ala axologabea izatea ala bere aginduak ez betetzea.

9. Artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluan adierazitako arau-hausteengatik aplikatu ahal izango diren zigorrak ondorengoak izango dira:

1.- Arau-hauste oso larriengatik:

- a) Lizentzia kentzea.
- b) Bertan behera uztea.
- c) Ohartarazpen publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 6.001 € eta 60.000 € bitarteko isuna.

2.- Arau-hauste larriengatik:

- a) Lizentzia kentzea.
- b) Bertan behera uztea.
- c) Ohartarazpen publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 601 € eta 6.000 € bitarteko isuna.

3.- Arau-hauste arinengatik:

- a) Lizentzia kentzea.
- b) Etenaldia.
- c) Ohartarazpen publikoa.
- d) Ohartarazpena.
- e) 600 € bitarteko isuna.

Talde Arbitraleko kideek eginiko Arau-hausteak eta Zigorrak.

10. Artikulua: Arau-hausteak oso larriak, larriak et arinak izan ahal dira.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Kontsideratuko dira, edozein kasutan, oso larriak ondorengoak:

- a) Kirolari batengana ala taldeengana eginiko frogatutako partzialtasuna.
- b) Ospakizuneko aktaren idatziarekin jakinaren gainean eginiko edonolako nahaste ala manipulazio, bere oharrak ez dira bat etorriko proban gertatuarekin, edota informazio maltzurra ala faltsua.

2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan arau-hauste larriak kontsideratuko dira ondorengoak:

- a) Proba batean bere funtzioak bete nahi ez izatea edota esleipena saihesteko arrazoi faltsuak ematea.
- b) Proba batera justifikatu gabe eginiko ez etortzea.
- c) Proba bat bertan behera uztea, horretarako Arautegian aurreikusitako zirkunstantziak kontuan hartu gabe.

3.- Arau-hauste arinak:

Kontsideratuko dira, edozein kasutan, arau-hauste arinak ondorengoak:

- a) Edonolako kontsiderazio ezaren adierazpen edota edozein pertsonarengana irainekin, adierazpen ala jarrera desegokiekin zuzentzea.
- b) Kirolari ala talde partaideetako kideen kirolaren aurkako jarreraren aurrean azaldutako pasibotasuna.

11. Artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluan adierazitako arau-hausteengatik aplikatu ahal izango diren zigorrak ondorengoak izango dira:

1.- Arau-hauste oso larriengatik:

- a) Lizentzia kentzea.
- b) Etenaldia.
- c) Ohartarazpen publikoa.

d) Ohartarazpena.

e) 6.001 € eta 60.000 € bitarteko isuna; ala arbitrajearen eskubideak eta gastuak galtzea.

2.- Arau-hauste larriengatik:

a) Lizentzia kentzea.

b) Etenaldia.

c) Ohartarazpen publikoa.

d) Ohartarazpena.

e) 601 € eta 6.000 € bitarteko isuna; ala arbitrajearen eskubidea keta gastuak galtzea.

3.- Arau-hauste arinengatik:

a) Lizentzia kentzea.

b) Etenaldia.

c) Ohartarazpen publikoa.

d) Ohartarazpena.

e) 600 € bitarteko isuna; ala arbitrajearen eskubideak eta gastuak galtzea.

Klubek eginiko Arau-hausteak eta Zigorrak

12. Artikulua: Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan ahal dira.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Kontsideratuko dira, edozein kasutan, arau-hauste oso larriak ondorengoak:

a) Proba batera ez etortzea ala bertan parte hartu nahi ez izatea, bi kasuetan justifikatu gabeko moduan, Klubeko talde baten aldetik, horretara behartuta legokeenean.

b) Klubeko talde batek probatik justifikatu gabe eginiko erretiratzea, hura hasita legokeenean.

2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan arau-hauste larria kontsideratuko da xedapen teknikoak ez betetzea, horiek probaren etenaldia eragiten dutenean ala axolagabetasunagatik pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen denean.

3.- Arau-hauste arinak:

Kontsideratuko da, edozein kasutan, arau-hauste arina proba batean lizentzia edota lizentzia hori bideratua izaten ari denaren behin behineko justifikazio baimena ez ekartzea.

13. Artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluetan adierazitako arau-hausteengatik aplikatu ahali zango diren zigorrak ondorengoak izango dira:

1.- Arau-hauste oso larriengatik:

- a) Kategoriaren galera ala jaitsiera.
- b) Lehiaketatik deskalifikatzea.
- c) Sailkapeneko puntuen deskontua.
- d) 6.001 € eta 60.000 € bitarteko isuna.
- e) Federazioan baja ematea.

2.- Arau-hauste larriengatik:

- a) Kategoriaren galera ala jaitsiera.
- b) Lehiaketako deskalifikazioa.
- c) Sailkapeneko puntuen deskontua.
- d) 601 € eta 6.000 € bitarteko isuna.
- e) Federazioan baja ematea.

3.- Arau-hauste arinengatik:

- a) Kategoriaren galera ala jaitsiera.
- b) Lehiaketako deskalifikazioa.
- c) Sailkapeneko puntuen deskontua.
- d) 600 € bitarteko isuna.

e) Federazioan baja ematea.

II. Atala: Kirol Arau Orokorren Arau-haustek eta Zigorrak

14. Artikulua: Kirol arau orokorrekiko arau-haustek izango dira aurreko atalean adierazi gabeko jarduerak ala ez-egiteak, indarrean dagoen Euskadiko Kirolaren Legean xedatuarekiko urkakoak direnak, diziplinazko ahala arautuko duten arautegiko xedapen publikoak, Euskadiko Triatloi Federazioko Estatutuetan eta Arautegi honetan.

15. Artikulua: Arau-haustek oso larriak, larriak ala arinak izan ahal dira.

1.- Arau-hauste oso larriak:

Kontsideratuko dira, edozein kasutan, arau-hauste oso larriak hurrengoak:

a) Dagozkion oinarrietan ala emakida hitzarmenetan ezarriekiko helburu ezberdinetarako lirartekeen laguntzen eta diru-laguntzen erabilera.

b) Emakidak eta diru-laguntzak emateko eskatutako datu errealen eta dokumentuen aldaketa nabarmena.

c) Esleipenen ala eskumenen legez kontrako usurpazioa.

d) Diziplinazko zein hauteskunde organoetako kideek eginiko estatutuko eta arautegiko betebeharren haustea.

e) Kirol instalaziotako segurtasunarekin eta higieinarekin lotutako federazio arauak haustea, hauetara etortzen diren pertsonentzako arrisku oso larria suposatzen dutenean.

f) Segurtasun arauak eta arriskuen estaldura hausten duten kirol jardueren antolaketa, jarduerak hirugarrenentzat arrisku oso larriak ekartzen dituztenean.

g) Euskadiko Triatloi Federazioko estatutuko zein arautegiko arauak eta hitzarmenak behin eta berriro hala nola modu nabarmenean haustea.

h) Probetako ala lehiaketetako, ofizialak izan ala ez, epaileengan, kirolariengan, teknikariengan, kirol agintariengan zein beste edonolako parte hartzaileengan eginiko eraso, indarkeria ala derrigortzea.

i) Agintearen gehiegikeriak.

j) Proba ala lehiaketa baten ospakizuna eragotziko duen protesta ala jarduera kolektiboa, haren aldi baterako ala behin-betiko etenaldia suposatuko lukeena.

k) Indarkeria eragingo luketen kirolarien, teknikarien, epaileen eta zuzendarien adierazpen publikoak eta gainerako jarduerak.

- l) Kirol jardueraren garapenerako esleitutako fondo publikoekin nahita eginiko erabilera desegokia.
- m) Debekatutako substantziekin eginiko sustapen, zirikatze eta kontsumoa edota debekatutako metodoen erabilera eta bere kontrol egokia eragotziko lukeen edonolako egite edota ez-egite.
- n) Jokoaren zein lehiaketaren, ofizialak izan ala ez, emaitza aurretiaz ezartzeko joera duten egiteak edota ez-egiteak.
- ñ) Arau-hauste larriarengatik ala oso larriarengatik ezarritako zigorrak haustea
- o) Arau-hauste larriak errepikatzea.
- p) Kirol Justiziaren Euskadiko Batzordeko Ebazpenak ez betetzea..
- q) Kirol modalitatearen garapenerako eta praktikarako larriki erasotzailea gertatzen den beste edonolako jarrera larri.
- r) Manipulazioa ala aldaketa, pertsonalki zein beste edonoren bidez eginikoa, kirol materialarena ala ekipamenduarena arau teknikoen aurka, probaren ala lehiaketaren segurtasuna aldatu ahal duenean edota pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen duenean.

2.- Arau-hauste larriak:

Edozein kasutan arau-hauste larriak kontsideratuko dira ondorengoak:

- a) Hutsegite larriarengatik ezarritako zigorrak haustea.
- b) Diziplinazko zein hauteskunde organoetako kideek eginiko bere funtzioen jarduerarik eza ala utzikeria, bere zereginen ez betetze oso larria suposatuko ez dutenak.
- c) Euskadiko Triatloi Federazioko selekzioen deialdietara justifikatu gabe eginiko ez etortzea.
- d) Probaren ala lehiaketaren garapen normala, bere etenaldia eragin gabe, aldatuko lukeen protesta egitea.
- e) Epaileei, teknikariei, entrenatzaileei, kirol agintariei, jokalariei ala bertaratutako ikusleei eginiko irainak eta laidoak.
- f) Epaileei ala teknikariei dagozkien jarduerak betetzea, dagokion titulaziorik ala baimenik gabe.

- g) Arau-hauste arinak errepikatzea.
- h) Ofizialen deitura izango luketen jarduerak, probak ala lehiaketak antolatzea, dagokien baimenik gabe.
- i) Betetzen den funtzioarekin ala jarduerarekin bateraezinak liratekeen ekintza publikoen ala pribatuen jarduera.
- j) Kirol lehiaketaren garapenak eskatzen duen duintasunaren ala ohorearen aurka eginiko jarduera nabarmena ala publikoa.
- k) Kirol instalaziotako segurtasunarekin eta higieñarekin lotutako federazio arauak ez betetzea, horrek bertaratzen diren pertsonentzat arrisku larria suposatzen duenean.
- l) Euskadiko Triatloi Federazioko estatutuko ala arautegiko arauen edota hitzarmenen ez betetze soila.
- m) Segurtasun arauak eta arriskuen estaldura beteko ez duten kirol jardueren antolaketa, jarduera burutzeak hirugarrenentzat arriskurik ekartzen ez duenean.
- n) Hamasei urtetik beherako adingabeen aldetik atxikipenerako, luzapenerako, prestakuntzarako, konpentsaziorako eskubideak ala antzekoak eskatzeko debekuaren ez betetzean parte hartzea, Autonomia Erkidegoan kokatutako erakundeen artean.
- ñ) Lizentzietan eta/edo haiek bideratzeko beharrezkoa den beste edonolako agirian islatutako datuen egiazkotasun ala engainuzko aldaketa.

3.- Arau-hauste arinak:

Kontsideratuko dira, edozein kasutan, arau-hauste arinak ondorengoak:

- a) Epailen, teknikarien, kirol agintarien, jokalarien ala bertaratutako ikusleen inguruko edonolako oharrak, hauek desegokiak izaten direnean.
- b) Bere funtzioak betetzerakoan, epaileengandik eta gainerako kirol agintariengandik jasotako ordenak eta instrukzioak betetzerakoan jarrera pasiboa izatea.
- c) Ez betetze arina suposatuko luketen diziplinazko ala hauteskunde organoetako kideen funtzioen jarduerarik eza edota utzikeria.
- d) Federazio organizazioan integratutako pertsonen ala erakundeen inguruan eginiko kontsideraziorik gabekoak nahiz iraingarriak diren adierazpen publikoak.
- e) Kirol arauetik erabat aurkakoak diren jarrera haiek, oso larriak ala larriak ez direnak.

16. Artikulua: Zigorrak.

Aurreko artikuluetan adierazitako arau-hausteengatik aplikatu ahal izango diren zigorrak ondorengoak izango dira:

1.- Arau-hauste oso larriengatik:

a) Lizentzia urtebete baino gehiagoko eta gehienez bost urterainoko eperako erretiratzea.

b) Lizentzia kentzea.

c) 6.001 € eta 60.000 € bitarteko isuna.

d) Urtebete baino gehiagoko eta gehienez bost urteko eperako karguak eta funtzioak betetzeko ezgaitzea.

e) Urtebete baino gehiagoko eta gehienez bost urteko eperako kirol instalaziotarako sarbidea debekatzea, probak ala lehiaketak ospatzen direnean.

f) Kategoriaz jaistea.

g) Jokotik, probatik ala lehiaketatik behin betiko kanporatzea.

h) Jokotik, probatik ala lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.

i) Ekitaldi ala proba bat baino gehiagoren baliokideak liratekeen sailkapenerako puntuak, partiduak ala postuak galtzea.

2.- Arau-hauste larriengatik:

a) Hilabete baino gehiagoko eta gehienez urtebeteko eperako lizentzia erretiratzea.

b) 601 € eta 6.000 € bitarteko isuna.

c) Karguak eta funtzioak betetzeko ezgaitzea, urtebeteko eperaino.

d) Jokotik, probatik ala lehiaketatik behin betiko kanporatzea.

e) Jokotik, probatik ala lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.

f) Ekitaldi ala proba bat baino gehiagoren baliokideak liratekeen sailkapenerako puntuak ala postuak galtzea.

g) Ohartarazpen pribatua.

h) Ohartarazpen publikoa.

3.- Arau-hauste arinengatik:

- a) Hilabeterainoko eperako lizentzia erretiratzea.
- b) 600 € bitarteko isuna.
- c) Jokotik, probatik ala lehiaketatik behin betiko kanporatzea.
- d) Jokotik, probatik ala lehiaketatik aldi baterako kanporatzea.
- e) Ohartarazpen pribatua.
- f) Ohartarazpen publikoa.

III. Kapituluak: Erantzukizunaren iraungipena

17. Artikulua: Erantzukizunaren iraungipenerako arrazoiak.

1.- Kirol diziplinaren erantzukizuna iraungiko da edozein kasutan:

- a) Zigorra betetzeagatik.
- b) Arau-haustearen preskripzioarengatik.
- c) Zigorren preskripzioarengatik.
- d) Erruztatuaren ala zigortuaren heriotzarengatik.
- e) Erruztatutako ala zigortutako kirol erakundea desagertzeagatik.
- f) Zigorra barkatzeagatik.

2.- Federatuaren egoeraren galera, batzuetan ezarritako zigoren eraginkortasuna eragin ahal badu ere, ez da diziplinazko erantzukizunaren iraungipenerako arrazoi izango.

18. Artikulua: Arau-hausteen eta zigoren preskripzioa.

1.- Arau-hausteak hiru urte, urtebete ala hilabete barru preskribatuko dira, eta preskripzioaren epea arau-haustea burutu den egunetik kontatzen hasiko da. Etengabeko jardueratik eratorritako arau-hausteetan, zenbaketaren hasierako data jardueraren amaierakoa edota arau-hausteari dagokion azkeneko jarduerarena izango da.

2.- Preskripzioaren epea prozedura zigortzailearen hasiera jakinarazten den unean etengo da. Prozedura honek hilabete baino gehiagoko epean zehar geratuta irauten badu, prozedura horrekin lotutako pertsona nahiz erakunde

arduradunari egotzi ahal ezin zaion arrazoiarengatik, dagokion epea berriro martxan jarriko da.

3.- Zigorrak hiru urte, urtebete ala hilabete barru preskribatuko dira arau-hauste oso larriak, larriak ala arinak izaten direnaren arabera eta preskripzioaren epea zigorra ezartzeko ebazpena finkatu zen hurrengo egunetik aurrera edo hasita balego, bere betetzea urratzen den unetik aurrera kontatzen hasiko da.

19. Artikulua: Zigortuek bere birgaitzea eskatu ahal izango dute, ondorioz burutuko den aurrekarien ezabaketarekin, zigorra betetzen denetik kontatutako hurrengo epeen arabera:

- a) Sei hilabete barru, zigorra arau-hauste arinarengatik ezarri denean.
- b) Bi urte barru, arau-hauste arinarengatik ezarri denean.
- c) Lau urte barru, arau-hauste oso larriarengatik ezarri denean.

Birgaitzea zigorra ezarri zuen organo beraren aurrean eskatuko da eta huts egitea epaitzeko zein zigortzeko prozedura, baliabide berdinekin jarraitutako bera izango da.

IV. Kapituluua: Erantzukizuna aldaraziko duten zirkunstantziena.

20. Artikulua: Jokoaren ala lehiaketaren aurkako arau-hausteetan aplikagarriak diren eta erantzukizunetik libratzen duten arrazoiak dira.

- a) Ustekabeko egoera.
- b) Ezinbestekak bultzatuta gertatutakoak.
- c) Eraso saihesteko norbere defentsa.

21. Artikulua: Erantzukizuna aldaraziko duten zirkunstantziak.

1.- Diziplinazko erantzukizuna aldarazten duten zirkunstantziak aringarriak eta larrigarriak izan ahal dira.

2.- Arau-hausteetan aplikatu ahal diren zirkunstantzia aringarriak dira ondorengoak:

- a) Arau-haustea egin aurretik behar adinako probokazioa gertatu izana.
- b) Bat-bateko damuarena.
- c) Eraginiko kaltea konpontzea, betiere garaiz eta bat-batean egiten denean.

3.- Kirol arau orokorren aurkako arau-hausteetan aplikatu ahal diren zirkunstantzia aringarriak izango dira, aurrekoez gainera, ondorengoak:

- a) Bere kirol ibilbidean inoiz zigortua gertatu ez izana.
- b) Eragindakoa baino larritasun urriagoko kaltea eragiteko asmoa.

4.- Kirol arau orokorren aurkako arau-hausteetan aplikatu ahal diren zirkunstantzia larrigarriak izango dira ondorengoak:

- a) Errepikatzea.
- b) Prezioa.

5.- Jokoaren eta lehiaketaren arauen aurkako arau-hausteetan aplikatu ahal diren zirkunstantzia larrigarriak izango dira, aurrekoez gainera, ondorengoak:

- a) Erabaki arbitralak berehala ez obeditzea, portaera hori arau-hauste modura tipifikatzen denean izan ezik.
- b) Eginiko arau-haustereengatik partidu baten garapen anormala eragitea.
- c) Ikusle bezala edonolako arau-hauste egitea, federazio lizentzia erabilgarri izanik, jokalaria, entrenatzaile ordezkari ala arbitro bezala.
- d) Aktan taldeko kapitaina bezala azaltzea.
- e) Errepikatzea. Errepikatzea gertatuko da autoreak aurretiaz zigortua izan den kasuetan, denboraldian zehar, larritasun berdineko ala handiagoko edonolako arau-hausteengatik, edota dagokionaren larritasun handiagoko ala urriagoko bi arau-hauste ala gehiagorengatik.

6.- Kirol diziplinaren ahala gauzatzekoan diziplinazko organoek zigorra egokitzen jotzen duten mailan ezarri ahal izango dute, ekintzen izaera, pertsona arduradunaren nortasuna, arau-haustearen ondorioak eta zirkunstantzia larrigarriak zein aringarriak kontuan hartuta.

V. Kapituluua: Kirol Diziplinazko Organizazioarena

22. Artikulua: Euskadiko Triatloi Federazioko diziplinazko ahala Diziplinazko Epaile Bakarrari eta Apelazioko Epaile Bakarrari dagokio.

I. Atala: Diziplinazko Epaile Bakarra

23. Artikulua: 1.- Diziplinazko Epaile Bakarra pertsona bakarreko organoa izango da Euskadiko Triatloi Zuzendaritza Batzordeak izendatuko duena.

2.- Diziplinazko Epaile Bakarra 4 urteko eperako izendatuko da. Edozein kasutan segidako epeetarako izendatu ahal izango da.

3.- Diziplinazko Epaile Bakarra Zuzendaritza Batzordeak kargugabetu ahal izango du, justifikatutako arrazoiarengatik eta motibatutako ebazpenarengatik.

4.- Diziplinazko Epaile Bakarrak arloan ezagutza bereziak edota funtzio mota horien inguruko frogatutako esperientzia izan beharko ditu.

5.- Ezin izango da Diziplinazko Epaile Bakarra izan Zuzendaritza Batzordeko kide bat.

24. Artikulua: Diziplinazko Epaile Bakarraren eskumena izango da lehenengo instantzian ebaztea jokoaren ala lehiaketaren arauetatik hala nola kirol arau orokorretatik eratorritako diziplinazko auziak.

II. Atala: Apelazioko Epaile Bakarra

25. Artikulua: 1.- Apelazioko Epaile Bakarra pertsona bakarra izango da eta Euskadiko Triatloi Federazioko Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du.

2.- Apelazioko Epaile Bakarra 4 urteko eperako izendatuko da. Edozein kasutan segidako epeetarako izendatu ahal izango da.

3.- Apelazioko Epaile Bakarra Zuzendaritza Batzordeak kargugabetu ahal izango du, justifikatutako arrazoiarengatik eta motibatutako ebazpenarengatik.

4.- Apelazioko Epaile Bakarrak arloan ezagutza bereziak edota funtzio mota horien inguruko frogatutako esperientzia izan beharko ditu.

5.- Ezin izango da Apelazioko Epaile Bakarra izan Zuzendaritza Batzordeko kide bat.

26. Artikulua: 1.- Apelazioko Epaile Bakarraren eskumena izango da Diziplinazko Epaile Bakarrak emandako ebazpenen aurka ezarritako errekurtsu guztien ezagutza.

2.- Halaber Apelazioko Epaile Bakarraren eskumena izango da Lehiaketa Batzordeak ala lurralde federaziotako Diziplinazko Epaileak emandako ebazpenen aurka ezarritako diren errekurtsuen ezagutza, estatutuetan eta horien arautegietan hala aurreikusita balego.

3.- Apelazioko Epaile Bakarrak hartzen dituen erabakien aurka egin ahal izango da Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean.

II. IZENBURUA

DIZIPLINAZKO PROZEDURENA

I. Kapituluak: Irizpide Nagusiak

27. Artikulua: Diziplinazko prozedurak.

1.- Diziplinazko erantzukizunen arazketa ohiko prozeduraren ala ezohiko prozeduraren bidez burutuko da.

2.- Ezohiko prozedura, lehenetsun eta sumarioaren irizpidetan oinarritutakoa, joko ala lehiaketa arauen arau-hausteetan aplikatu ahal izango da.

28. Artikulua: Diziplinazko erantzukizunak eta erantzukizun penalak.

1.- Diziplinazko Batzordeak, ofizioz ala alderdi interesdunak hala eskatu izateagatik, Ministerio Fiskalari delitu ala huts egite penalaren izaera izango luketen ekintza haiek jakinarazi beharko ditu. Kasu honetan, Batzordeak prozeduraren etenaldia hitzartuko du dagokion ebazpen judiziala agintzen den arte.

2.-Aurrekoa hala izanik, Diziplinazko Batzordeak beharrezko kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu.

29. Artikulua: Diziplinazko eta administrazioaren arloko erantzukizunak.

1.- Ekintza berdinak Kirolaren Legean eta garapenerako bere jendaurreko Arautegietan araututako administrazio erantzukizunetarako eta Arautegi honetan aurreikusitako diziplinazko erantzukizunetarako bidea emango balu, Euskadiko Triatloi Federazioko diziplinazko organoak, ofizioz edota alderdiren batek hala eskatu izateagatik, eskumeneko administrazio organoari jakinarazi beharko dio, betiere diziplinazko prozeduraren izapideari utzi gabe.

2.- Diziplinazko Batzordeak eskusiboki administrazio erantzukizunerako bidea emango luketen ekintzen berri izaten duenean, eskumeneko administrazio organotan aurrekarien berri emango du.

30. Artikulua: 1.- Era berean, Diziplinazko Batzordeak, espedientearen hasieran, erabakiaren eraginkortasuna babesteko nahiz konponbiderik gabeko kaltea ekiditeko beharrezkoak izango liratekeen kautelazko neurriak hartzea hitzartzeko ahalmena izango du.

Neurri horiek espedientea bideratzen den bitartean eta honen ebazpena arte iraungo dute, eta dagokion errekursoaren xedeetarako interesdunen jakinaren gainean jarri beharko dira.

2.- Ezin izango da legeek babestutako eskubideen urratzea inplikaturako duen kautelazko neurriak hartu ala aplikatu.

31. Artikulua: 1.- Interesdunek bere nahiak alde batera utzi ahal izango dituzte prozeduraren edozein fasean, baina atzera egiteak hura formulatu duenarengan soilik izango du eragina.

2.- Atzera egitea Diziplinazko Epaile Bakarraren ala Apelazioko Epaile Bakarraren aurrean formulatu beharko da, idatziz ala ahoz, agerraldiaren bidez, eta azken kasu honetan dagokion izapidea bete eta sinatu beharko da.

3.- Atzera egiteak diziplinazko espedientearen amaiera eta artxibatzea ekarriko du, eskaera hori egingo ez luketen beste interesdun batzuek daudenean, edota Diziplinazko Epaile Bakarrak zein Apelazioko Epaile Bakarrak interes orokorreko arrazoiak direla-eta prozeduraren jarraipena hitzartuko luketenean izan ezik.

II. Kapituluak: Ohiko Prozedurarena

32. Artikulua: 1.- Kirol diziplinazko prozedura, kapitulu honetan araututakoa, diziplinazko organoaren aldetik hasiko da, epailearen erabakiarekin.

2.- Epailearen erabakiak, gutxienez, ondorengo datuak izango ditu barne:

- a) Espediente irekitzea eragin duten ekintzen azaleko erreferentzia eta horiek gertatutako data.
- b) Espediente ireki zeneko data.
- c) Interesdunak ala eraginak.
- d) Bere kasuan, jadanik hartutako kautelazko neurriak.

e) Bere kasuan, diziplinazko organoak eskatutako proba-baliabideak edota espedientearekin lotutako dokumentuak, hark ala hirugarrenek eskatutakoak.

3.- Erabaki hori interesdunen jakinaren gainean jarriko da.

33. Artikulua: Diziplinazko Batzordeak, salaketaren berri izatean edota balizko arau-hauste baten berri izatean, erabakia eman aurretik erreserbatutako informazioaren prozedura irekitzea hitzartu ahal izango du zeinetan espedientea irekitzea ala, bere kasuan, hau artxibatzea erabakiko den.

34. Artikulua: 1.- Espedientea irekitzean, eta hura ireki dela jakinaraztean, eta kasu horretan diziplinazko organoak beharrezkotzat emango lituzkeen kautelazko neurriak hartzeari utzi gabe, hura jakinarazten denetik hurrengo hamar egunen barnean, epe frogagarriari hasiera emango zaio, hogeitun egun gaindituko ez dituen eta bost lanegunen azpitik egongo ez diren eperako; honetan zehar izapide batzuek praktikaturako dira zein ekintzak argitzeko hala nola hauetatik eratorritako erantzukizunak zehazteko beharrezkoak izango diren.

Diziplinazko organoari dagokio praktikatu beharreko frogaren izapideak zehaztea, berak eskatzeagatik ala aurreko paragrafoan adierazitako epearen barnean interesdunek idatziz aurkeztutako proposamenarengatik; interesdun hauen jakinaren gainean jarri beharko dira agindutako ala onartutako frogak ospatzeko tokia, eguna eta ordua.

2.- Espedientea bideratzeko eta ebazteko ekintzak zuzenbidean onargarria den edonolako froga baliabideren bidez egiaztatu ahal izango dira.

3.- Diziplinazko organoaren hitzarmenen aurka, froga-praktikaren onarpenaren ala ukapenaren inguruan, ez dagokio inolako errekurtsorik, interesdunak hura eskatu ahal izateari utzi gabe bai ebazpenaren aurretiazko audientziaren izapidean eta bai ebazpen horren aurka dagozkion eta formulatzen dituen errekurtsuetan.

35. Artikulua: 1.- Praktikaturako jarduerak ikusita, froga-epea amaitzen denetik hurrengo hamar egunen barnean, kargu-orria formulatuko du, eta hauetan egotzitako jarduerak, bere kasuan praktikatu izango liratekeen frogen emaitza, eta espedientearen ebazpen proposamena azalduko dira. Hori guztia interesdunen jakinaren gainean jarriko da, horiek, jakinarazpenetik aurrera kontatu beharreko hamar lanegunen epean bere eskubideak eta interesak defendatzeko komenigarritzat jotzen dutena adierazi ahal izan dezaten.

2.- Kargu-orriari eta ebazpen proposamenari erantzunez, edota adierazitako epea interesdunen aldetik izapidea egin gabe adierazitako epea pasatzen denean, hamar eguneko epean, diziplinazko organoak ebatziko du, hasierako

bere ebazpen proposamena mantenduz, edota bere kasuan, eginiko alegazioak aintzat hartuta horiek arrazoituta aldatuz

3.- Ebazpena eman aurretik diziplinazko organoak, hornidura hobea eta ebazpena emateko amaieraren etenaldia dela medio, bere unean interesdunek proposatuko zituzketen eta azkenean proposamena egiten duenari egotzi ezinezko beste edonolako arrazoiengatik praktikatu izango ez ziratekeen frogazapideen praktika agindu ahal izango du.

36. Artikulua: Ebazpenak espedienteari amaiera emango dio, federazio apelazioko ala bigarren instantziako errekurtsuari utzi gabe.

III. Kapituluak: Ezohiko Prozedurarena

37. Artikulua: 1.- Diziplinazko organoaren aldetik berehalako esku hartzea eskatuko den hipotesi haietan guztietan, joko-arauen aurkako arau-hauste bate dela-eta edota kirol lehiaketa baten ondorioz ala eraginez, eta haren garapen normala bermatzeko, diziplinazko organoak aldi berean interesdunen alegazioen izapideak egin ahal izango ditu, ahozkoa izan ahal dena, baita frogen praktikarena ere, zeinen artean garrantzi berezia izango duten arbitroaren aktak ala arbitroaren zein federazio Ordezkararen txostenak, eta bere ebazpena emango dute lehiaketaren garapen normalak ala jarraipenak eskatuko duen presaren arabera.

2.- Diziplinazko organoak era berean aldi baterako etenaldiak egingo lituzke edota beharrezkoa izango litzatekeen beste edonolako kautelazko neurri hartu ahal izango luke.

3.- Betiere salbu geratuko da interesdunen audientzia irizpidea, baita dagozkion instantzien bidez hartutako hitzarmenen aurka errekurritzeko horien eskubidea ere.

38. Artikulua: 1.- Arbitroek, epaile jaun/andreek ala federazioaren aldetik jokoaren zein lehiaketaren arauak kontrolatzeko ahalmena jasotzen duten pertsonak hartutako erabakien aurkako erreklamazioak, arau-hausleak, ala bere klubaren ordezkariek dagokion akta jaso duenetik hurrengo berrogeita zortzi orduren barnean formulatu beharko lirateke. Alegazioen idatzian, edozein kasutan, praktikatua izatea nahi lukeen froga proposatu beharko luke.

2.- Diziplinazko organoak aurka-egitea ala erreklamazioa bost eguneko epean ebatziko du, aurreko epea amaitu zen unetik kontatuko dena. Epe hori hedatu egin ahal izango da proposatutako eta onartutako froga praktikatua izan ezin denean froga-proposamen hori onartzen denetik ondorengo bost egunen barnean. Edozein kasutan epea ezin izango da hamar eguneko baino luzeagoa izan.

IV. Kapituluua: Jakinarazpenak eta Errekurtsoak

39. Artikulua: 1.- Kirol diziplinazko prozeduretan emandako erabakiak eta ebazpenak interesdunen jakinaren gainean jarri beharko dira, kasu bakoitzean dagozkion erabaki ala hitzarmen eta erreklamazio ala errekurtsoen edukiaren adierazpenarekin, hartzen direnetik gehienez hamar eguneko epean, ohiko prozeduraren kasuan, eta bost egunekoan ezohiko prozeduraren kasuan.

2.- Jakinarazpenak interesdunen gizarte helbide ala egoitzan burutuko dira, egiaztatutako gutun, telegrama edo beste edonolako komunikabideren bidez zeinek interesdun horien aldetik jaso izanaren froga izatea ahalbidetuko duten.

3.- Hitzarmenaren ala ebazpenaren garrantziak ala hedapenak hala eskatzen duenean, Epaileak ala Apelazio Batzordeak halaber bere argitalpena, hedapena edota jakinarazpen publikoa agindu ahal izango ditu, betiere pertsonen ohorerako zein intimitaterako eskubidea errespetatuz, indarrean dagoen legeriaren arabera.

40. Artikulua: 1.- Arautegi honetan ala estatutuetako xedapenetan edota dagozkion arautegietan erreklamazioa nahiz errekurtsoa jartzeko espresuki epea ezartzen ez denean, interesdunek bere erreklamazioak ala errekurtsoak jarri ahal izango dituzte, hamar egunen epearen barnean.

2.- Arautegi honetan edota estatutuetako zein dagozkien arautegietako xedapenetan espresuki epe bat ezartzen ez denean, kirol diziplinaren arloan formulatutako erreklamazioak ala errekurtsoak atzera bota direla ala ukatu egin direla ulertuko da jartzen direnetik hogeita hamar egun pasatzeagatik, eta hori ez da oztopoa izango diziplinazko organoak espresuki eman beharreko hitzarmenaren ala ebazpenaren betebeharrerako.

3.- Aurreko zenbakietan adierazitako epeak kontatzen hasiko dira, lehenengoa erreklamatzeko den ala errekurriz den hitzarmen ala ebazpen erako jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera, eta bigarrena, artikulua honetan xedatutakoaren arabera erreklamazioa ala errekurtsoa ezeztatu direla ulertuko den hurrengo egunetik aurrera.

41. Artikulua: Euskal Federazioko diziplinazko organoak eta -bere kasuan- lurralde federaziotako lehiaketa Batzordeak ala Epaileak lehenengo instantzian emandako diziplinazko ebazpenak, interesdunen aldetik errekurritu ahal izango dira Euskadiko Triatloi Federazioko Apelazioko Epaile Bakarraren aurrean.

42. Artikulua: 1.- Errekurtsoak idatziz formalizatuko eta aurkeztuko dira, Euskadiko Triatloi Federazioko helbidean ala egoitzan edota lurralde federazioan, bere kasuan, Apelazioko Epaile Bakarrarengana zuzenduta.

Halaber administrazio orokorreko prozeduraren xedapen arautzaileetan aurreikusitako tokitan aurkeztu ahal izango dira.

2.- Errekurtsoak formalizatzeko idatziek barne izan beharko dituzte:

a) Errekurtsoa jartzen duenaren eta auzian interesa duten gainerakoen identifikaziorako datuak, aktiboa zein pasiboa izango den bere legitimazioaren justifikazioarekin.

b) Jarduera, hitzarmen ala ebazpenaren adierazpen garbia zeinen aurka errekurtsoa jarriko den, haren kopiarekin batera behar izango balitz, edo, behintzat, erreklamatzeko den ala errekurtsoa jartzen den ebazpenaren espediente zenbakiaren eta dataren adierazpena eginez.

c) Errekurtsoa motibatuko duten alegazioen, eta haren oinarria liratekeen oinarrien ala arauen adierazpena.

d) Froga-izapideak, bere kasuan, bigarren instantzian praktikarako proposatuko direnak.

e) Eta formulatzen diren nahien adierazpen zehatza eta doia.

3.- Errekurtsoa, Euskadiko Triatloi Federazioan 50 €-ko gordailua egin izanaren egiaztagiriarekin batera gauzatuko da. Kopuru hori interesdunari itzuliko zaio, beti ere erabakia haren aldekoa denean.

4.- Ebazpena emango da, edozein kasutan, gehienez hura jartzen denetik kontatzen hasiko litzatekeen hogeita hamar eguneko epean. Ezohiko prozeduran emandako ebazpenaren aurkako errekurtsoa izaten denean, epea zazpi eguneko izango da, ala gutxiagokoa aurretiaz hala erabakitzen bada.

43. Artikulua: Errekurtsoaren aurkezpenak ez du errekurritzen den erabakiaren gauzatzea etengo, Apelazio organoak hala erabakitzen duenean izan ezik, ofizioz ala interesdunak hala eskatu duelako.

44. Artikulua: 1.- Euskadiko Triatloi Federazioaren Apelazio organoak emandako diziplinazko hitzarmenek eta ebazpenek federazio bidea agortzen dute eta Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

2.- Kirol Justiziaren Euskal Batzordeak emandako diziplinazko hitzarmenek eta ebazpenek administrazio bidea agortzen dute, eta aplikagarriak diren eskumeneko arauen arabera administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean errekurritu ahal izango da.

45. Artikulua: Euskadiko Triatloi Federazioak ezarritako zigorren inguruko liburua ala erregistroa izango du erabilgarri, eksklusiboki kontuan hartu

beharreko xedeetarako, bere kasuan, ezarritako zigorraren eta haren dataren berri emateko; bere preskripzio-epeak; Aldaketarako arrazoia eta birgaitzeko eskubidearen jarduera.

46. Artikulua: Prozeduraren arloan aplikagarria izango da, izaera gehigarriarekin, Euskadiko Kirolaren Legean eta kirol diziplina erregulatzeko Arautegi publikoetan xedatua, eta, bere kasuan, Euskadiko Triatloi Federazioko Estatutuetan aurreikusitakoa, baita administrazio prozedura komuna erregulatzeko duten arauetan aurreikusitakoa ere.

Izpta. Lehendakaria

Izpta. Idazkaria